


# ELGERA



**ANDONI ROSA RUIZ**

**ABAO-OLBEKO FIGURANTEA**

12



- 3 Egun berezia
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Jarduerak
- 8 Erreportajea
- 10 Erabilera
- 12 Musika
- 13 Teknologia berriak
- 14 Ikus-entzunezkoak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Jarduerak
- 17 Denbora-pasak



18

# aurkibidea

ELGERA 9. ZK. abendua



10

- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola



4



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.300. Webgunea: [www.elgeraldizkaria.wordpress.com](http://www.elgeraldizkaria.wordpress.com)



# Berdintasunarekin guztiok irabazten dugu!!!

Ikasturte osoan hezkidetzarekin loturiko hainbat ekintza egiten dira institutu osoaren parte-hartzearekin, batez ere data esanguratsuen inguruan.

Data horietako bat esatebaterako, azaroaren 25a izaten da, 'Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna'. Artikuluxka honen izenburua izan zen, hain zuzen, iazko leloa: 'Berdintasunarekin guztiok irabazten dugu!!!'

Metodologia beti da bera, edo antzekoa, lehenengo klaseetan

lantzen da gaia eta gero atsedenaldian ikastetxeko ekitaldia egiten dugu denok batera: manifestua, bertsoak, musika, kantak...

Ekitaldi erreibindikatioa baina dibertigarria ere, askotan, eta astia egonda, *Patxidantza*-rekin amaitzen dugu.

Aurten ere gogoratu dugu eguna

eta hainbat ekintza gauzatu ditugu.

Aurtengo leloa 'Ez ikusiarena ez egin' izan da, lekukoen papera aztertzea garrantzitsua dela pentsatzen dugulako, batzutan inguruan gertatzen diren eraso asko normaltasunez ikusten baititugu eta honen inguruan hausnarketa egin behar da.

# “Nire anaia eszenatoki gainean ikusi nuenean, nik ere hori nahi nuela erabaki nuen”

LA SALLE

Marina Ruiz, Unai Diez, Ane Vazquez, Ibon Alcubilla eta Naia Ruiz

Andoni Rosa Ruizek, Deustuko Salestar ikasleak, 13 urte ditu eta OLBEn parte hartzen du figurante modura. Sei urterekin hasi zen baina horretxegatik ez ditu bere beste zaletasunak albora utzi (saskibaloia, lagunak...) ezta ikasketak ere.





### Zer da OLBE?

OLBE hitzak Operaren Lagunen Bilboko Elkartea esan nahi du. Opera antzezlan bat da, aktoreek abestu egiten dute eta ez dute hitz egiten.

### Zer egiten duzu OLBEEn?

Figurantea naiz; opera batean pertsona gehiago behar dutenean deitzen didate. Nire paperak ez dira inoiz izaten protagonistak edota garrantzitsuak.

### Zenbat operetan parte hartu duzu?

Orain arte sei operetan parte hartu dut.

### Zein da egindako lanik gogokoena? Zein izan da zure paperik gustukoena?

Gehien gustatu zaidan lana *L'elisir d'amore* izan da eta papera Macbethena.

### Nola erabaki zenuen OLBEEn hastea?

Nire amaren lagun batek figuranteak bilatzen ditu; komentatu zion eta nire anaia hasi zen. Gero, nire txanda izan zen.

### Noiz hasi zinen?

Sei urterekin hasi nintzen lehenengo aldiz. Nire anaia zegoenez parte hartzeko gogoak nituen, baina sei urte baino txikiagoa bazara, ezin duzu parte hartu.

### Zenbat egunetan joaten zara entseguak egitera?

Deitzen didate lan bat eskainiz eta onartzen dudanean esaten didate noiz joan. Norma-

lean, asteartero eta ostegunero izaten dira entseguak, baina ordutegia ez da finkoa izaten; inoiz gaueko 11etan ere atera naiz handik! Halakoetan, etxerako lanak atsedenetan egiten ditut.

### Etorkizuna ikusten duzu operan?

Bai, nagusitzean jarraitzea gustatuko litzaidake.

### Gustura zaude jendearen aurrean interpretatzen? Ez zara lotsatzen?

Bai, oso gustura nago, ez dut lotsarik, imajinatzen dudalako ez dagoela inor niri begira eta beste entsegu arrunt bat dela, eta horrela... lotsarik ez izatea lortzen dut!

### Ikastetxetik kanpo, beste ekintzarik egiten duzu?

Bai, saskibaloia jolasten dut.

### Eta egun baten saskibaloia aldi berean izango bazenu, zer erabakiko zenuke egitea?

OLBEra joango nintzateke, saskibaloian gehiagotan daukat jolasteko aukera eta interpretatzeko, ez hainbeste.

### Zer esango zenioke sei urteko ume bati figurantea izateko?

Lagun berri piloa egiten direla eta eszenatokian egotea zoragarria dela esango nioke. Oso ondo pasatzen dugu. Gainera, prestaketa guztia ikustea (jantziak, makillajea, agertokiaren muntaia...) oso interesgarria dela.



## SARA

Hau Sara da. Bi ahizpa dauzka eta 7 urte ditu. Olentzerori eskatu nahi dio: na kontatu digu: Bere ahizparentzat sukalde bat eskatuko dio. Berarentzat, tablet bat, erloju bat eta *El laberinto* jolasa eskatu nahi ditu eta, bestalde, munduarentzat bakea eta poza eskatu nahi dio.

## JULEN

Hau Julen da, 6 urte ditu. Arreba bat dauka, Nahia, eta anaia ere badauka, Eder. Julenek Olentzerori liburuak, panpin bat eta sorpresa bat ekartzeko eskatu nahi dio. Baina munduan dauden behartsuentzat ere zerbait eskatu nahi dio: behartsuek janaria izatea.



## ENERITZ

Neska honek 5 urte ditu eta Eneritz izena du. Olentzerori motxila bat, tren bat eta *Frozen* filma ikustea eskatuko lioke, baita amarekin eskulanak egitea ere, aitarekin janaria prestatu eta biekin batera parkera joatea.



## MIKEL

Mikel izeneko 5 urteko ume honek Olentzerori Scalextric bat, txakur bat, Play Mobilen motor txikia eta bere anaiarentzako auto bat eskatuko lioke. Bestalde, familiarekin egotea, Gabonak ondo ospatzea mahatsak janez, hotel batera lo egitera joatea eta umore onez ospatzea gustatuko litzaioke.



## IKER

Iker, LHko 3. mailan dago eta Olentzerori, alde batetik, tablet bat eta liburu bat eskatuko dizkio, eta bestetik, familia bere ondoan izatea beti, batez ere momentu zailenetan.



## ELENE

3. mailako neska hau Elene da eta Olentzerori zera eskatuko lioke: eskulanak eta pilota bat, baita munduan jatekoa ez amaitzea ere, inork goserik ez pasatzeko.



# Historiaurreko tailerrak Enkarterriko Museoan

Joan den azaroaren 4an, Enkarterriko Museora joan ginen San Inazio BHIko 1.mailako ikasle guztiok.

Heldu bezain laster, Bizkaiko eskualdeko maketa bat erakutsi ziguten eta bertan mendiak eta az-

tarnategien izenak ikusi ahal izan genituen.

Gero, zinema-gela batera joan ginen eta film labur bat jarri ziguten harriak nola lantzen ziren erakusteko.

Ondoren, bi taldetan banandu ginen: batzuek, *Suaren bila* filma ikusi genuen, eta bertan paleolito garaiko bizimodua nolakoa zen

ikusi genuen; beste batzuk, aldiz, tailerrera joan ziren.

Gero, tartetxo bat eduki genuen. Tailerrean sua egiten ibili ginen pirita, sukarrria eta ardagaia erabiliz; harriak landu genituen silexa perkutorearekin kolpatuta zati zapalak atereaz; azkenik, labar artea garai hartako gizakiak bagina bezala margotzen aritu ginen.





## Euskara Bilboko plazan

Guggenheim Museoaren atzealdea ikaslez lepo bete da. Bilboko 11 ikas-tetxetako ikasleek eta irakasleek, iaz bezala aurten ere, Euskararen Eguna bertan ospatzea erabaki dute. Horma artean baino aire librean elkartu dira adinkide diren Bilboko gazteak. 1.800 guztira. Eta eserita baino mugimenduan jardun dira, bertsoka, kantuka eta dantzaka. Eta noski, euskaraz.







# Zein taldek euskara gehien?

**Deustuko Ikastolako DBHko 4.mailako ikasleak gara. Aurreko urtean, euskara bultzatzeko asmoz, lehiaketa bat egin genuen DBHko guztiok.**

Lehiaketak bost astean euskara mintzatzea zuen helburu, eta arlo bakoitzeko irakasleek euren saioetan puntuatu behar gintuzten 0tik 3ra, Lengua eta Literaturakoek izan ezik. Puntu gehien lortzen zituen klaseak sari bat irabaziko zuen.

Nahiz eta batzuetan jendeari asko kostatu euskaraz mintzatzea, DBHko 3Ako ikasleok

irabazi genuen. Izan ere saria, Sopolako Surf Eskolan egun pasa izan zen.

Goizko 9:00etan autobusa hartu eta Sopolarantz abiatu ginen. Lehenik, neoprenoa jantzi eta hondartzan surf ariketak egin genituen. Ondoren, uretan sartu eta bi orduz bertan egon ginen olatuak hartzeko prest... eta hartu genduzan!!! Azkenik, dutxa beroa





eta Deustura egin genuen buelta.

Oso esperientzia polita eta atsegina izan zen irakasle eta ikasleekin batera egun hura euskaraz igaro izana.

Aurten ere, lehiaketa egingo dogu. Oraingoan ordea, txanda bi egongo dira: lehenengoa Gabon ostean, eta bigarrena Aste Santu ostean. Saria zein izango den oraindik ez dakigu... Baina gogoz asteko!!!



Aritz Mendiola

# Kaleko izarra

Duela denbora bat institutuko ikasketaburuak ELGERA aldizkarian ateratzeko aukera eman zidan, nire esperientzia telebisiboa azaltzen.

Nik pozik onartu nuen eskaera, eta horrela, hemen aurkitzen nauzu domeka eguzkitsu honetan nire ohe gainean, tableta aurrean dudala, idazten.

Hara, *dejavu* antzeko bat bezala gogoratzen dut, nire 'STARS izarrak kalean' saioko kastina horrelaxe egin nuela, ohe gainean, tableta aurrean eta honen aurreko kamararekin Cody Simpsonen *New Problems* abestia interpretatzen.

Handik aste gutxira (programa hasita zegoelarik) nik ezer jakin barik, aitak institututik arinago atera ninduen, zera, "lanetik arratsal-

dea libre hartu zuelako" eta nik sinetsi, noski. Etxera heltzerakoan kartel handi bat zegoen portalean "Zorionak Aritz" jartzen zuena, eta gero barrurago "sorpresa handi bat dugu zuretzat" jartzen zuen beste bat, bai, programa barruan nengoen eta handik ordu batera Durangon nengoen, nire gitarra soinean eta pare bat abesti buruan.

Esperientzia izugarria izan zen, bertan, kalean abesten, jendea epaile, txalotzen eta nirekin gozatzen, izugarria izan zen. Egia esan irabaztea ez zen nire helmugetako bat, eta harrিতa geratu nintzen irabazle irteterakoan. Baina hor ez zen dena amaitu, final handia geratzen zen, Donostian, eta nahiz eta hau irabazi ez izan, eta mila euroak etxera ez eroan, mila euro baino gehiagoko esperientzia eta lagun handiak eroan nituen. Eta hori izan zen niretzat sari nagusia.



Aurrerapen teknologikoak gure bizitzan parte hartzen du. Hau, gazteok erabiltzen ditugun bideo-jokoetan ikus dezakegu.

IES UNAMUNO  
Olaia Colau

## JOKOEN EBOLUZIOA: KALETIK ORDENAGAILUETARA

Duela denbora gutxira arte, ostiralero gazteak kalean ibiltzeko geratzen ziren, baina orain, aldiz, *Play Station 5*-ean jolasteko.

Jokoan inguruan ere desberdintasun handia dago. Adibidez, *Mario Bros* iturginetik hasita, *GTA 5*-eko armetaraino. Nahiz eta bideo-jokoak adin desberdinetarako sailkatuta egon, nerabe gehienok biolentziakoak erabiltzen ditugu.

Helduen iritzia entzun eta gero, oso argi ikusten da haiek ez dutela guk honelako jokorik erabiltzerik nahi, baina ezin da ezer

egin, bideo-jokoan kontua XXI. mendearen moda famatuena bihurtu delako. Hori, duela egun gutxi ikusi zen, *Call of Duty* berria atera zutenean, adibidez. Gazte gehienak horretaz hitz egiten genuen, eta zenbait pertsonak egunean bertan erostera joango zirela esan zuten.

Guzti hau kontuan izanda, gure ondorioa, bideo-jokoekin arreta handia eduki behar dugula da. Nahiz eta bortitza edo hezigarria izan, ezin dugu ukatu bideo-jokoak gure bizitzaren zati garrantzitsuetako bat direla.

SALESTARRAK DEUSTO - LHko 6. mailakoak

## IRRATSAIOA

5. mailan ezagutu genuen Bertsolaritza hamabostero Bertsozale Elkartetik irakasle bat etortzen zitzaigulako, Arkaitz. Aldez aurretik, ikastetxeko ospakizunetan, ikasle nagusiei entzuten genienean irrikitan geunden 3. ziklora heltzeko.

Gainera bagenekien urtero Bizkaia Irratikoak etortzen direla irratsaioa grabatzera. Irratsaioan 6. mailakoek prestatzen dute gehien bat baina 5.ekoek ere parte hartzen dute pixka bat.

laz maiatzean izan zen grabazioa. Aurreko egunetan entseguak egin genituen Bertsolaritza eta Hizkuntza saioetan. Denok geneu-

kan hitz egiteko edota abesteko aukera. Oso pozik geunden!


Heldu zen eguna! Bizkaia Irratitik kazetari bi etorri ziren. Gu aurkeztu ondoren gai ezezagun bati buruzko galderak egin zizkiguten, eskua altxatu behar genuen eta guregana hurbiltzen zen mikrofonoa eskuan zuela.

Gero guk prestatutakoa grabatu genuen: bertsoak, asmakizunak... Oso ondo atera zen!

Aurten, berriro izango dugu! Orain badakigu zertan datzan irratsaioa eta bagabiltza prestatzen poz-pozik. Aurten oraindik hobeto egingo dugu!




Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?



Loteria salmenta DIOGUNEan...

Gora komunen iraultza!!!



Etxean saiatu, zergatik ez!

Alegria-Dulantzi herriaren poztasuna hain da handia



Ago, ago, ago... jakina!





# Segura, bizipen zoragarria

**Segura barnetegia Gipuzkoan dagoen Euskal Girotze Barnetegia da. Rekaldeberri Institutuko 2.DBHko ikasleok joan ginen gure euskarazko irakaslearekin talde giro ona izateko eta euskaraz gehiago mintzatzeko. Itziar, Josexo (Txo), Txema (Txe) eta Agustin (Takolo) izan ziren gure irakasleak.**

Segurako Euskal Girotze Barnetegia 1996/97 ikasturtean sortu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aingeru Zaindaria aterpetxean kokaturik dago.

Lehenengo egunean ailegatzetakoan, Josexo monitorearekin egin genuen topo eta argazkiak egin genituen; bat taldearena eta banabanakoak. Gero, Txema etorri zen eta taldeko lanak eta dinamika egiten hasi ginen. Jateko janari ekologikoa, goxo-goxoa, ez genuen inoiz horrelako gauzarik jan. Lanorduak intentsiboak izan ziren, hau da, lan handia epe laburrean. Jolastokia, oso aproposa zen, denetarik geneukan. Arratsaldean, egindako dinamika aztertu genituen.

Bigarren egunean, Takolo ezagutu genuen, ez genekien Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoen kidea zenik, gure irakasleak esan zigun arte.

## **Egin genituen jarduerak**

Giro ona izateko dinamika egin genituen. Masajeak: lehenengo, bikoteak masaje bat egiten zigun eta gero aldatu egiten zuten bikotea guk jakin gabe, begiak estalita genituelako.

Hizkuntzari buruzko eztabaidak ere izan genituen. 'Borrokatzea' tokatu zitzaigun. Eztabaidaren gaia hizkuntzak itsasontzi batean zeudela zen. Itsasontzia ez hondoratzeko, hizkuntzak kendu behar genituen baina arrazoi baliagarriak eman ez.

Irakasleak gure arrazoiak kontuan izanda zer hizkuntza hondoratu erabakitzen zuten. Zaila izan zen, baina azkenean lortu genuen amaitzea, nahiz eta asko eztabaidatu genuen.

Guztiok batera jolastu, mendira joan, museo batera joan... Gauza izugarriak egin genituen, beste batzuk ez hainbeste, baina me-rezi izan zuten Segurara joatea.

Segura herriko botikara joaterakoan gure irakasleari bururatu zitzaion (Itziar) herriko plazara joatea mosto bat edatera. Horrela, herrian eroso geundela irudituko zitzaielako herriko jendeari, edo hori esaten zuten Itziarrek.

Azken eguna garrantzitsuena eta hoberena izan zen, dinamika lasaia, alai eta polita izan zelako. Egonaldia, bizipen ahaztezina izan zen.



# 20 segundotan asmatu behar duzu emaitza



Gai zara hurrengo burutzeko?

3			
5	2		
8	3	1	
18	10	7	?

Eta hurrengo segida?

$$14 = 7$$

$$12 = 6$$

$$10 = 5$$

$$6 = 3$$

$$4 = ?$$

Ez da 2!!!!

# Gure Deustuko erribera

**Deustuko erribera oso alde berezia da. Arraun taldea, jaiak, ospitalea, parkea eta jende zoragarria aurki dezakezu bertan.**

Lehenengo eta behin, Deustuko erribera Deustuko zubitik Sarrikoko erribera hasten den lekuraino doa. Antzina ontzigitza zen nagusitzen zen jarduera ekonomikoa, baina gaur egun errekan zehar piraguak eta arraunlariak aurki ditzakegu.

Hari beretik, erdian geratzen den zubia Euskalduna zubia da. Kurba itxura dauka eta urdin ilunekoa da. Bere azpian parke polit bat dago; Deustuko ume orok jolastu du hemen txikitan. Bere alboan Deustuko Ikastola dago, baita Deustuko kiroldegia ere. Kiroldegian igerilekua eta gimnasioa daude.

Esan beharra dago, Euskalduna zubiaren alde hau oso entzutetsu eta enblematikoa dela. Izan ere, bere azpian jartzen dira txosnak eta agertokia Deustuko jaietan. Eta nola ez, oso giro polita sortzen da, jende gazte pilo ibiltzen da hortik. Gainera, 'Oktoberfest'





LA SALLE  
Nagore Ezkurra, Maider Loriaux,  
Ana Leguina, Jone Iraragorri eta  
Juan Corral

jaialdia ospatzeko karpa ere hor-  
txe bertan jartzen dute. Eta ez  
hori bakarrik, duela urte batzuk  
Bilboko Aste Nagusiko kontzertu-  
ak ere hortxe egiten ziren.



Honen ostean, hurrengo zubia  
Zorrotzaurren eraikiko den irla  
berrira joatekoa da. Irla hau Bilbo  
berritzeko pentsatuta dago eta  
bertan etxebizitzak egongo omen  
dira. Zubiaren aurrean, berriz,  
IMQ ospitalea daukagu, eta jada  
bizpahiru urte daramatza mar-  
txan.

Zorrotzaurren Deustuko Arraun  
Taldea dago. Sarritan ikus de-  
zakegu hainbat arraunlari ibaian  
zehar entrenatzen. Oso harro  
gaude gure arraun taldeaz, edo-  
zein auzok ez daukalako arraun  
talde bat!



Amai dezagun esanez, Deustuko  
erriberako jaiak ekain aldera ospa-  
tzen direla. Ikurrinaren igoera-  
rekin hasten dira eta bertan era  
askotako ekimenak aurki ditzake-  
gu, futbito txapelketa edota kale-  
jira dibertigarriak, besteak beste.

# HAUR HEZKUNTZA ETA PERTSONEN ARRETA IKASTEN

**Nera, Esti eta Xabi Eskurtze BHiko Lanbide Heziketako ikasleak dira. Estik 41 urte ditu eta lekeitiarra da. Nerea 21 urteko gernikarra eta Xabi Errekaldeko 19 urteko mutila da. Lehenengo biak Haur Hezkuntzako zikloa ikasten ari dira, Xabik berriz Pertsonen Arreta. DBH4ko ikasleok elkarrizketa egin diegu Lanbide Heziketak ziklo hauei buruz gehiago jakiteko.**

## **Zergatik aukeratu dituzue heziketa ziklo hauek eta zergatik Eskurtzen?**

*Esti:* Nik Administritzia ikasi nuen, lanean egon naiz eta eszedentzia bat eskatu nuen umea zaintzeko eta horretan nengoela ikusi nuen nire bizitza aldatu behar nuela, beste gauza bat egin edo ikasi. Haur Hezkuntza ematen zen lekuak begiratzen aritu nintzen. Pribatuak eta publikoak zeuden. Ezkurtze publikoa zenez merkeago zen. Beste alde batetik instalazioak eta irakasleak onak iruditu zitzaizkidan. Erreferentziak onak nituen.

pertsonei laguntzea gustukoa dut. Behar duten pertsona guztiei laguntzeko prest nago.

## **Ez al da oso gogorra zailtasunak dituzten edota gaixorik dauden pertsonekin edota umetxoekin lan egitea?**

*Xabi:* Orokorrean oso harreman politak serratzen dira zaintzen dituzun pertsonekin. Hala ere batzuetan pertsona batzuek ez dute beren burua kontrolatzen eta agian gauza arraroak edo desatseginak egiten ditzakete... baina ez da haien errua.

*Nera:* Gogorra ez da, azkenean gu ere umeak izan gara eta norbaitek ere garbitu gaitu, higiene oiturak mantentzea eta erabiltzea egokia da nire ustez, gogorra ez da, agian inoiz ez baduzu ikusi edo egin igual zaila izan daiteke bai, baina praktikarekin, gauza oso normala. Ez da umeekin bakarrik gertatzen nagusiekin ere gertatzen da, haiek ere zailtasunak dituzte higiene mantentzeko orduan eta beste persona batzuk egin behar dute haien ordean.

## **Betidanik izan duzue argi hau ikasiko zenuzela?**

*Xabi:* Nik suhiltzailea izan nahi nuen, eta ikusten duzue hemen nago. Argi daukadana da beti izan dudala gustuko jendeari laguntzea, horregatik Pertsonen Arreta zikloa ere oso aproposa dela uste dut.

*Nera:* Batxillerrean nengoenean zalantzak nituen, edo Artearen Historia ikasi edo Haur



*Xabi:* Ni adibidez gaixotasunak dauzkaten pertsonekin egon nintzen lanean eta horregatik ikasten ari naiz hau, esperientzia gogorra, baina oso baliogarria izan zelako. Beste

Hezkuntza. Azkenean Haur Hezkuntza aukeratu nuen umeak gehiago gustatzen zaizkidalako.

### **Orain ikasten ari zaretena, zaila iruditzen al zaizue?**

*Esti:* Ez, baina orain dela urte asko ez nuela ikasten eta berriro ikasketetan hastea gogorra egin zait. Baina, gustura nago eta ez zait zaila iruditzen.

*Xabi:* Azken finean ikasketa hauek norberak aukeratu ditu, beraz gustuko gaiak ikasten dituzu. Edukiak egunean eramaten badituzu ez da batere zaila.

### **Zer motatako lanak egiten dituzue praktikoak ala teorikoak?**

*Esti:* Bietakoak, praktikoak eta teorikoak. Ume txikiekin lan egiteko oso garrantzitsua da dinamikoa izatea; beraz gure zikloak atal praktikotik asko ditu. Adierazpen ikasgaiak adibidez, umeentzako antzerkia eta abestiak landu ditugu baita koreografiak ere, beldurrak eta lotsa kentzeko. Panpinekin ere praktikak egin ditugu ume txikiak direnean, nola hartu, nola mugitu batetik bestera... ikasteko. Nik uste dut gai batzuk oso teorikoak direla, baina beste batzuk oso praktikoak, bietarikoak daude.

### **Haur Hezkuntza eta Pertsonen Arreta zikloak nesken ikasketak al dira?**

*Nera:* Nire ustez ez da nesken kontua. Egia da neska gehiago gaudela klaseetan, lehenengo mailan bi mutil ditugu eta bigarren mailan beste bi. Ez da ohikoa mutilak ikustea, baina oso ondo eramaten dituzte klaseak eta oso gogoko izaten dituzte asignaturak eta pena da mutil gehiago ez animatzea. Beti, txikitatik, ikusi dugu "andereño, andereño", irakasle gehienak neska direla eta pena da. *Xabi:* Egia da neska nagusi direla, baina gero eta mutil gehiagok egiten dituzte hone-lako zikloak.

### **Lanbide zikloa amaitu ondoren zer egiteko asmoa duzue?**

*Esti:* Nire asmoa 0 eta 2 urteko umeekin ego-



tea da, gehien gustatzen zaidan adin tartea delako. Beharbada orain ez dago lan askorik eta oso zaila da Haur Hezkuntzan lan egitea, baina hori nahiko nuke.

*Xabi:* Nik espero dut lanbide honetatik bizitzeta. Lagun batzuk ditut ikasketa hauek egin dituztenak eta lanean ari dira. Azken finean gero eta adineko jende gehiago dago, baita laguntza behar duen bestelako jendea ere. Beraz ni itxaropentsu nago.

*Nera:* Lehenengo ea lanik badagoen. Baina bestela lana topatzen dudan bitarte horretan bestelako ikastaroak egitea pentsatuta daukat profesional hobea izateko.

Oso ondo zorte on hirurontzako.



# Eihartze, Munduko Xake Txapelketan

Eihartze Buiza xakean jokatzen hasi zen bere nebak gustuko zuelako eta berak interesa zuenez, jokatzen erakutsi ziolako. Hiru urte zituela, torneo batera joan zen eta lehenengo geratu zen. Orain Grezian dago Munduko Txapelketa jokatzen.

## Zertan datza jokoa, oroimen handia izatean ala sormenean?

Ez bata ez bestea, bien arteko nahasketa da. Partida bakoitzean jokaldiak pentsatzeko sormena behar da eta oroimena behar da aurretik ikasi dituzun partida modeloak gogoratzeko eta praktikan jartzeko.

## Diruaren aldetik garestia al da xakea praktikatzea?

Kirol oso garestia da; asko bidaiatzen duzu, batez ere Euskadin ez dagoelako txapelketa askorik, baina sari metalikoak daudelako ere bai.

## Bakarrik ala taldean praktikatzen duzue?

Banakako lana oso gogorra eta zaila da, horregatik entrenatzaile bat edukitzea ezinbestekoa da. Banakako klaseak arinago ikasteko hobeak dira, baina taldekoak ere inportanteak dira beste era batean ikasteko.

## Jokaldi bakoitza nola antolatzen duzu denborari dagokionez?

Normalean jokalaria bakoitzak bi ordu ditu pentsatzeko eta nahi dugun bezala antola dezakegu. Denbora eta isiltasuna ezinbestekoak dira jokatzeo, zeren eta denboraren arabera gehiago edo gutxiago pentsatzera



grapher  
Matisone

'behartuta' zaude eta mugimenduak hobeak edo txarragoak izan daitezke.

## Zein izan da jokatu duzun partidarik luzeena? Asko nekatzen du xake jarduerak? Nola erlaxatzen zara?

Nire partidarik luzeenak bost ordu iraun du. Ia beti partidak 90 minutu + 30 segundo jokalaria bakoitzekoak dira eta ezin dute bost ordu baino gehiago iraun. Berehala Munduko Txapelketa jokatzerara joango naiz eta hor sei edo zazpi ordu iraun dezake. Bai, nekatzen du. Partida osoan pentsatzen egon behar duzulo. Bestalde, ez dut erlaxatzeko beharrik.


## Urduri zabilitza txapelketa dela eta?

Bai, oso urduri nago. Duela 40 urte Euskadiko inork ez duelako Munduko Txapelketa jokatu eta esperientzia bakarra delako.

## Etorkizun baten bila

Tokiz toki, herriz herri  
haien lekua bilatzen  
miseria ta gerrari  
ihes egiten saiatzen  
milaka kilometro latz  
haien oin hutsez ibiltzen  
norberaren familia  
salbatzeko borrokatzen  
errefuxiatu gaixoak  
jarri diegula izen  
baina ni ez nago ados  
eta ez naiz konformatzen  
heroi hauen historia  
nabilelako kontatzen.

Gerizeti Zubiaurre Bañuelos



Errefuxiatu hauen herriko  
egoera ez da ona  
haien herritik ihesi datoz  
han utzita zoriona  
haien maletan beldurra eta  
tristura ezinegona  
etorkizunik gabeko herri batetik  
ihesean datoz hona.

Siria herri bizia zen ta  
orain berriz dago hila  
baina honaino heltzea haientzat  
izaten da oso zaila  
haien ustetan Alemania da  
lujua ta marabila  
Europaraino etortzen dira  
etorkizun baten bila.

Elda Ugarte Mota eta Irati Antepara Arregi



**ESNA  
IZU  
EIN.**

**eizuein.eus**

Deustu eta San Inazioko Euskara Taldeko Unibertsoak antolatuta,  
2015eko Euskararen Eguneko pegatina lehiaketako irabazlea:  
Martin Romera 1HT Botikazar BHI (Zorionak!)